

URNIETAKO UDALAREN JOKABIDEARI, GOBERNU ONARI ETA KALITATE INSTITUZIONALAREKIKO KONPROMISOARI BURUZKO KODEA

1. JOKABIDEARI BURUZKO KODEA

1.1. Helburua

Helburua da kargu hautetsiak betetzen dituzten pertsonak eta udal langileek, finantzaketan eta kontuak ematean gardentasun mekanismo eraginkorrak demokratikoak eta herrikoiak erabiliz, kudeaketa politiko konprometitua eta herritarrengandik hurbila ziurtatzeko bete beharko dituzten praktika eta ekintza zehatzen kode bat jasotzea.

Jokabide kode honen agindupean kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak konpromisoa hartzen dute, halaber, printzipio etiko horiek administrazio publikoan guztientzat nahitaezko arau bihur daitezzen beharrezkoak diren legezko tresna eta mekanismoak bultzatzeko.

1.2. Jokabide-printzipioak

- **Zuzentasuna.** Zuzentasuna da zerbitzari publikoek zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta harekin bat datozen printzipioekin bat eginez jardutea egunero; printzipio horiek dira, besteak beste, inpartzialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna eta legezkotasuna.
- **Eredugarritasuna.** Herritarrek euren burua begiratzen duten erakundearen "ispilu" direnez, saihestu egingo dituzte Udalaren irudi instituzionala gutxienik ere kaltetu dezakeen eta herritarrek Udalean duten konfiantza honda dezakeen edozein ekintza edo ez-egite.
- **Ezaxola subjektiboa.** Erabaki politikoak interes publikoaren eta herritarren mesederako baino ez dira hartu behar. Horrek esan nahi du ez duela susmorik egon behar hartutako erabakiak mesede egiten dion (edo egin diezaiokeen) erabakia hartu duenari, haren senideei edo lagunei; edo erabaki horiek udalerraren interes orokorrekarekin zerikusirik ez duen beste interes batzuen eraginpean hartu diren.
- **Inpartzialtasuna.** Beti jardun behar da inpartzialtasunez emandako agintaritzakberek in dakartzan betekizunei jarraikiz erabakiak hartzeko prozesuan. Inpartzialtasuna ezinbestekoa da jarduera hauetan: langileak izendatzea, kontratu administratiboak egitea, dirulaguntzak ematea edo ukatzea, arauak aplikatzea, finantza-baliabideak erabiltzea eta abar.
- **Kontuak ematea.** Hartutako erabakien eta ekintzen erantzule izan behar dute beti. Hortaz, erabakiak hartzeko arrazoi objektiboak ezagutzera emango dituzte, erabaki horiek azterketa politikoaren eta herritarren azterketaren mende jarriko dituzte, ebaluatu egingo dituzte, eta, hala badagokio, bere gain hartuko dituzte egindako akatsen ondorio politikoak. Kontu emateak erantzukizun politikoak edo kudeaketa- erantzunak nork bere gain hartzea eskatzen du beti.
- **Gardentasuna.** Erabakiak hartzean eta jarduerak gauzatzean argi eta garbi eta gardentasunez jokatu behar dute: erabakiak hartzeko prozedura eta arrazoi buruzko informazio sinesgarria eta osoa eman behar dute; halaber, erabaki horien finantza- kostuen berri eman behar dute. Informazio hori mugatu egingo da soilik legeek hala aurreikusten dutenean. Gardentasunez jokatzeko Gobernu Irekiaren ("kristalezko gobernu") aldeko apustu argia eta sendoa egitea eskatzen du, batik bat altxortegi publikoetan eta herritarrek ordaintzen dituzten zergetan eragin ekonomiko eta finantzarioak dituzten erabakiei

dagokienez.

- **Zintzotasuna.** Zintzo jokatu behar dute, eta, horretarako, ezinbestekoa da funtzio publikoak gauzatzea oztopa dezaketen interes pribatuak ezagutzera ematea eta gerta daitezkeen interes-gatazkak konpontzeko urratsak ematea. Hortaz, nahitaezkoa da zuzenbideari men egitea, prozeduren edukia eta izaera betetzea, ekonomia eta finantza modu eraginkorrean kudeatzea, Jokabide Kode hau betetzea eta norberaren zein Udaleko beste ordezkari eta langile batzuen interes-gatazkak ezagutzera ematea.
- **Errespetua.** Errespetuz tratatu behar dituzte, beti eta nonahi, herritarrak, langile publikoak eta gainerako ordezkariak. Beraz, ez dute mespretxuzko hitzik erabili behar, gainerakoen eskubideak zaindu behar dituzte, ez dute inolako diskriminazio- jardunbiderik izango, jendea adeitasunez tratatu behar dute, eta pertsona bakoitzak erakundearen eta tokiko erabakiak hartzeko prozesuetan dituen zereginak aintzatetsi behar dituzte. Atseginez tratatu behar dituzte, zehazki, erakundeko ordezkari politikoak, langileak, hornitzaileak eta herritarrak.
- **Legezketasuna.** Indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatuko dute.
- **Berdintasuna.** Pertsona guztiak berdin tratatzen direla bermatuko dute, eta ez dute inor diskriminatuko honako arrazoi hauengatik: jaiolekua, arraza- edo etnia-jatorria, generoa, sexua, sexu-orientazioa, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo beste edozein inguruabar. Halaber, objektibotasunez eta aurreiritzirik eta faboritismorik gabe jardungo du. Egoera ahulenean dauden kolektiboaren gizarteratzea sustatuko dute, baita gizarte- aniztasunaren tolerantzia eta sustapena ere, eta haien kohesioa bermatuko dute. Potentzialari zuzendutako ekintzak bultzatuko dituzte, eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatu.
- **Giza eskubideak.** Nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatzen eta babesten direla zainduko dute, baita pertsona guztien oinarrizko eskubideak, askatasun publikoak eta estatutu-eskubideak errespetatzen eta babesten direla ere.
- **Modernizazioa.** Teknologia berrien erabilera modu eskuragarrian bultzatuko dute, eta herritarrekiko elkarrekintza modu arin, seguru eta ulergarrian indartuko duten bitarteko eta sistemen erabilera bermatuko dute.
- **Arduraz jokatzeari.** Beren eginkizunak betetzean, behar besteko arretaz jardungo dute, eta kalitatea sustatuko dute zerbitzu publikoak ematean.

1.3. Ordezkari politikoaren jokabide estandarrak

Jokabide-estandarrak jarduera-printzipioak dira. Jarduera-printzipioen multzo horretan sartzen dira, halaber, ordezkari-kargu publikoak dituzten gutxiengo zeregin eta betekizunak. Zeregin eta betekizun horien helburua da funtzio horiek Urrietako Udalaren egituraren zeregin instituzionala indartzea, herritarren aurrean betetzen direla ziurtatze aldera.

Hona hemen bete behar dituzten jokabide-estandarrak:

1.3.1. - Betekizun orokorrak:

- Agintaldiaren hasieran bateraezintasunen eta jardueren adierazpena eta ondare-ondasunen adierazpena egitea. Agintaldian gertatzen diren ondare-aldaketak jakinaraziko dituzte eta horiek izan ezean, horren amaieran.
- Pertsona guztiak egoera bakoitzak eskatzen duen errespetuarekin eta adeitasunarekin tratatzea beti.
- Ez ematea konfidentziala den informaziorik, ezta bere karguagatik ezagutu duen

informaziorik ere, eta isilpean gordetzea. Betebehar hori beti bateratzea gardentasun-printzipiotik eratorritakoekin.

- Ez jokatzeko herritarren aurrean ordezkatzeko duen erakundearen irudia edo ospe instituzionala kaltetzeko moduan.
- Kargu instituzionala ez erabiltzea bere onerako edo beste pertsona edo erakundebaten onerako edo txarrerako, salbu legez onartutako diskriminazio positiboko kasuetan.
- Bere gidalerroak beste pertsona batzuek betetzen dituztenean, saiatzeko pertsona horiek ez ditzaten erabili gidalerro horiek euren onerako edo hirugarrenei mesede edo kalte egiteko.
- Erabakiak hartzeko prozesuan, aintzat hartzea, batetik, gai horretan bete behar den legeria; eta bestetik, erabaki zentzuzko eta eraginkorra hartzen lagun diezaieketen eta erabaki hori justifikatzen duten iritzi, aholku, txosten eta azterlan guztiak.
- Beren eginkizunak betetzean, ez hartzea inolako neurririk beren eginkizunei uko egin ondoren abantaila profesionala eta pertsonala emango dienik.

1.3.2. Erantzukizun publikoak betetzea

- Eginkizunak arduraz, dedikazioz, gardentasunez eta hartutako erabakien aurrean erantzuteko borondatez betetzea.
- Ez gauzatzea favoritismo-kutsua duen jarduerarik edo herritarrengan pertsona edo erakunde batzuek mesede-tratua jaso duen susmoa sor dezakeen jarduerarik.
- Karguari dagozkion eskumenak ez baliatzea, zuzenean edo zeharka, norberaren interes pribatuen edo beste pertsona edo talde batzuen interes espezifikoekin alde egiteko.
- Norbere interesa eta interes publikoa bat ez badatoz, bozketa eta erabakietan jakinaraztea; eta, ez parte zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala duen bozketa edo egintza guztietan edo interes-gatazka hori egon daitekeela ondoriozta daitekeen guztietan.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzea, eta ez erabiltzea ondasun publikorik interes pribatuetarako.
- Herritarrak eta erakunde edo entitateak berdintzat tratatuko direla bermatzea, inolako diskriminaziorik gabe.
- Ekitatea (berdintasuna) sustatzea, eta hura erabat betetzea eragozten duten oztopo guztiak kentzea.
- Indarrean dagoen legeriari jarraikiz eskuratutako botereak dagozkien helburuarekin erabiltzea eta interes publikoa edo erakundearen ondarea arriskuan jar ditzaketen jarduerak eragozteak.
- Oro har, beren jardun publikoari eta beren erantzukizunak betetzeari buruz orokorrean onartzen diren arau eta ohitura sozialak errespetatzea.

1.3.3. Interes-gatazkak

- Interes-gatazkak sortzen dira interes publiko batek edo batzuk eta beste interes pribatu edo publiko batzuk elkar oztopatzen dutenean. Horrelakoetan, arriskuan jartzen da (edo arriskuan jartzen dela dirudi) zeregin publiko nagusia independentea, objektiboa eta

inpartziala izatea.

- Interes-gatazka oro saihestea, hau da, edozein pertsonak ikusten duenean, erabakiak hartzeko prozesu batean, interes pribatuen eragina egon daitekeela, eta horrek eragotzi edo desbideratu egin dezakeela betebeharrak publikoak betetzea.
- Ez erabiltzea euren pribilegio edo eskumen instituzionalak prozedurak bizkortzeko, kargetatik salbuesteko edo Udalarenak ez diren interesengatik hirugarrenei inolako onurak emateko.
- Ez egitea negoziarik, zuzenean edo zeharka Udalaren interes publikoen kontrakoak diren edo udal-ordezkararen jardura politikoa zuzenean edo zeharka zalantzan jar dezakeenik.
- Kargu publikodunek haien zeregin eta erantzukizunen kontrakoa den edo izan daitekeen interes-gatazkaren bat izaten badute, ezagutzera eman behar dute berehala; hau da, adierazi behar dute, ahal izanez gero idatziz, interes-gatazka bat dagoela edo, gutxienez, interes-gatazkaren bat egon daitekeen susmoa dutela. Betiere, interes-gatazkaren bat badago edo halakorik egon daitekeen susmoa badago, erakundearen ospea zaintzeko kautelazko neurri hau hartu behar dute: ez parte hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan, interes-gatazkaren bat dagoen susmoa edukizgero.

1.3.4. Opariak eta lor daitezkeen onurak

- Ordezkaritza-kargu publikodunek ez onartzea haien karguak direla-eta pertsona eta erakunde pribatuak egin nahi dizkieten opari eta zerbitzuak; salbu gizarte-ohitura eta adeitasunagatik egiten direnak. Aipatu ohitura horiez gaindikoa opariak erakundearen ondarean sartuko direla. Nolanahi ere, ez onartzea haien etorkizuneko erabaki politikoen eragina izan dezaketen dohaintza, opari eta zerbitzuak.
- Ez onartzea inolako sarrera, txartel, loteria-zenbaki edo bestelako zuzeneko edo zeharkako onurarik, baldin eta ohiko, gizarteko, kortesiako edo ordezkaritza instituzionaleko usadioetatik harago badoaz edo beren erantzukizunak betetzean etorkizuneko erabakiak hartzea baldintzatu badezakete.
- Zentzuzko neurriak hartzea gertuko senideek opari edo mesederik jasotzen ez dutela ziurtatze aldera, pertsona edo erakundeek mesede-tratua jasotzen duten susmorik sor ez dadin.

1.3.5. Ordezkaritza- edo zuzendaritza-kargu publikodunen harremana beste kargu edo langile publiko eta herritar batzuekin

- Udaleko arduradun politikoak behar bezalako begirunez tratatzea, eta oposizio politikoko kideak begirune bereziarekin.
- Oposizio politikoko kideak behar besteko errespetu eta begirune instituzionala izatea tokiko gobernu-taldeko kideei.
- Kortesia, hezkuntza eta errespetua izatea beti tokiko politikarien arteko harremanen oinarria.
- Udaleko langile publikoak errespetuz eta arretaz tratatzea, bereziki beren eginkizunak betetzen dituzten jardura-arloko edo -sektoreko kideak. Horrek esan nahi du errespetu eta begirune hori alda edo eragin dezakeen inolako jokabiderik ez egitea.
- Herritarrak zuzentasunez eta adeitasunez tratatzea eta proposamenak, iradokizunak eta

kexak arretaz entzutea.

- Gardentasuna: informazioa eskura izatea
- Kasuan kasuko erakundearen jarduera politiko eta kudeaketa-jarduera guztiak gardentasun-printzipioaren mende jartzea, legeak konfidentziasuna eskatzen duenean edo hirugarrenen eskubideei eragin diezaieketenean izan ezik. Nolanahi ere, salbuespen horiek modu murriztailean interpretatuko dira.
- Publizitate aktiboaren printzipioa betetzea, erakundeetan gardentasuna ziurtatzeko.
- Informazio publikoa herritarren eta erakundeen eskura jartzea sustatzea, lege ezarritako mugak aintzat hartuta.
- Informazio-eskariak erantzun bizkor, egoki eta arrazoituak jasotzen dituztelaziurtatzea.
- Udaletan Gobernu Irekia ezartzearen, datuak eta administrazio elektronikoa berriz erabiltzearen alde egitea.
- Herritarrek parte hartzeko dauden bideak sustatzea, baita Internet eta sare sozialen bidez ezarritakoak ere.
- Administrazioa sinplea eta hizkera erraz eta ulergarrikoa izan dadin lan egitea.
- Eginkizunak betetzean datu pertsonalak zaintzea, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezarritakoari jarraikiz.

1.4. Udal langileen jokabide estandarrak

- Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
- Haren jardunak herritarren interes orokorrak asetzea izango du helburu, eta inpartzialtasunera eta interes komunera bideratutako kontsiderazio objektiboetan oinarrituko da, alde batera utzita jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak, bezeroak edo printzipio horrekin talka egin dezakeen beste edozein alderdi.
- Zerbitzuak ematen dituzten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, mendekoekin eta herritarrekin leialtasun- eta fede oneko printzipioen arabera jardungo dute.
- Jokabide hori oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetuan oinarrituko da, eta jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, generoa, sexua, sexu-joera, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta bereizkeriarik eragin dezakeen edozein jarduera saihestuko du.
- Abstenitu egingo dira interes pertsonala duten gaietan, bai eta beren lanpostu publikoarekin interes-gatazkak sortzeko arriskua ekar dezakeen jarduera pribatu edo interes orotan ere.
- Ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute esku hartuko pertsona edo erakundeekiko finantza-eragiketetan, ondare-betebeharretan edo negozio juridikoetan, lanpostu publikoko betebeharrekin interes-gatazka eragin badezake.
- Pertsona fisikoek edo erakunde pribatuak ez dute inolako mesede-traturik onartuko, ezta justifikaziorik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardungo dute, eta interes orokorra lortzen dela eta erakundearen helburuak betetzen direla zainduko dute.
- Ez dute eraginik izango izapideak edo administrazio-prozedura arintzean edo

suntsiaraztean, bidezko arrazoirik gabe, eta, inola ere ez, horrek pribilegiarik badakar kargu publikoen titularren edo berehalako familia- eta gizarte ingurunearen mesedetan, edo hirugarrenen interesak kaltetzen baditu.

- Arduraz beteko dituzte dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak, eta, hala badagokio, epe barruan ebatziko dituzte beren eskumeneko prozedurak edo espedienteak.
- Zerbitzu publikora dedikatzeko printzipioaren arabera gauzatuko dituzte beren eskumenak, eta ez dute zerbitzu publikoaren aurkako jokaerarik izango, ezta zerbitzu publikoak gauzatzean neutraltasuna arriskuan jartzen duen beste edozein jokabide ere.
- Sailkatutako gaiak edo legez zabaltzea debekatuta duten beste gai batzuk isilpean gordeko dituzte, eta kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaiei buruz behar den diskrezioa izango dute, eta lortutako informazioa ezin izango dute erabili beren edo hirugarrenen onurarako, edo interes publikoaren kalterako.

2. GOBERNU ONAREN PRINTZPIOAK

Urnietako Udalak jarraian adierazten diren printzipioen arabera garatuko du bere politika- eta gobernu-ekintza, haiek betetzetik gero eta hurbilago dagoen kudeaketa politikoa gauzatzeko.

Tokiko Gobernu Onaren printzipioak bi ataletan egituratzen dira, helburua jardun politikoari buruzko informazioa ematea den edo, hala badagokio, gobernariak baliabide publikoak kudeatzea den.

2.1. Gobernu Onaren printzipioak tokiko ordezkaritza-kargu publikodunaren eta zuzendaritza-karguen jardunean

- Indarrean dagoen sistema juridikoa betetzea eta herritarren oinarritzko eskubideak betetzen direla ziurtatzea.
- Herritarrek gai publikoetan eta erabaki publikoak hartzeko udal-prozesuetan egoki irizitako partaidetza-moduen bidez parte har dezaten sustatzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan gardentasunez jokatzeko eta herritarrei behar duten informazio guztia ematea, erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan.
- Herritarren premiei azkar erantzutea eta dauzkaten arazoak eta egiten dituzten eskariak denbora egokian ebatzea, betiere herritarren eskaerei garaiz eta modu egokian erantzuteko konpromisoa hartuta eta erantzun horiek arrazoituta.
- Politikarien, gizartearen eta herritarren arteko adostasunaren alde egitea, gizarte- interesen artean bitartekari-lanak eginez, eta gizarte-agenteei arreta berezia jartzea, bereziki gizarte-egoera ahulenean daudenei.
- Erakundearen berrikuntza sustatzea eta antolamendu-egituren eta prozeduren modernizazioa bultzatzea.
- Pertsonen eskaerarako administrazio harbera eta irisgarria ezar dadin bultzatzea, eta, horretarako, administrazio-hizkera argia eta ulergarria erabiltzea, administrazio-prozedurak sinplifikatu eta arintzea, eta gehiegizko karga burokratikoak ezabatzea.
- Udal-gobernantza adimentsu eta jasangarriaren alde egitea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gizarte-kohesioa sustatzea eta aniztasuna eta elkarbizitza egoki kudeatzea.

- Ingurumenaren babesa eta klima-aldaketaren kontrako eta biodibertsitatearen aldeko borroka bultzatzea.
- Baliabide publikoak modu eraginkor eta zentzuzkoan kudeatzea, baliabideak ez suntsitzea, justifikatu gabeko gasturik ez egitea eta zorpetzea jasangarria izan dadin lortzea.
- Erabaki politiko eta administratibo guztien erantzule izatea, bereziki kudeaketan dituen emaitzena.
- Zerbitzu edo arloen eginkizunei, jarduteko arrazoiei edo funtzionamenduari buruzko edozein informazio-eskaerari arretaz erantzutea.
- Herritarrak udalerrikoak diren sentimendua sustatzea, eta baliabide publikoak errespetatzeak eta arduraz eta modu eramangarrian erabiltzeak duen garrantzia nabarmentzea
- Administrazio publikoen arteko koordinazioa sustatzea.

2.2. Gobernu Onaren printzipioak prestazio eta baliabide publikoen kudeaketari dagokionez

- **Jasangarritasuna.** Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-lehentasan egoki orekatzea eta, horretarako, herritar guztiek parte har dezaten sustatzea. Hirigintza-plangintzako erabakietan hiri-ingurune jasangarri eta adimentsuen alde egitea, betiere herritarren premiak aintzat hartuta. Jasangarritasuna ez da ingurumenera murriztu behar, baizik eta era guztietako baliabideetara lekualdatu behar da, ekonomia- eta finantza- baliabideak barne.
- **Deszentralizazioa.** Tokiko autonomia indartzea, baita erabakiak hartzean, zerbitzuak ematean eta baliabideak esleitzean, lurralde-unitate egokietan (auzoetan, beren autonomia errespetatuta administrazio-batzarretan eta abarrean) egitea. Erabakiak hartzean eta baliabideak esleitzean edo zerbitzuak ematean lurralde-deszentralizazioaren jardunarekin batera, partaidetza-sarearen hazkundera eta kalitatea lortu behar dira.
- **Ekitatea.** Ekitate printzipioan oinarritutako politiken eta zerbitzuen alde egitea, bai jende hartzaileari dagokionez, bai zerbitzuen prezioari (edo tasei) dagokionez. Hala, ahal den neurrian, azkenekoa herritar bakoitzaren ahalmen finantzariora egokituko da. Talde ahulentzat pizgarriak zehaztuko dira.
- **Berdintasuna.** Emakume eta gizonen egiazko berdintasun eraginkorra bermatzea honako printzipio hauen arabera: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, dibertsitatearekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzak.
- **Efizientzia.** Zerbitzuak kudeatu eta ematean, baita gastu publikoa zehaztean ere, baliabide-mota guztiak erabiltzeko orduan efizientziaren irizpideetara jotzea.
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Bai erabakiak hartzeko prozesuetan, bai edozein administrazio-prozeduratan edo tokiko aginte publikoen jardunean, gardentasunaren printzipioa gidari hautatzea. Ildo horri eutsiz, gardentasun printzipiotzat joko da publizitate aktiboaren printzipioa eta, legeak zehazten dituen gutxieneko mugekin, herritarrek informazio publikoa lor dezaketela bermatzeko bitartekoa.
- **Hiritar-konpromisoa, eta berezko hizkuntza eta kultura, baita dibertsitatea ere, defendatzea.** Herritarrek Udalarekin erlazionatze aldera hizkuntza ofiziala hautatzeko eskubidea errespetatzen dela bermatzea eta, beraz, hautatutako hizkuntzan arreta

ematea. Euskara eraginkortasunez ezarriko da eta orokorrean erabili ere bai, tokiko administrazioarekiko harremanetan eta udalerrian bertan gizarte-harremanetan. Euskal kultura adierazpen guztietan bultzatuko da. Era berean, honako haueksustatuko dira: dibertsitatearen kultura, herritarren hiritar-erantzukizunak, errespetuaren kultura, gatazkak ebazteko hautabidezko bitartekoak erabiltzea eta bitartekaritza, tokiko politikan gizarte-egoera ahulean dauden kolektibo edo taldeen partaidetza (gazteak, adinekoak, etorkinak, langabeak, etab.) tokiko gobernuak erabakiak hartzeko prozesuan haien interes, iritzi eta ikuspegiak behar bezala balora ditzan.

- **Segurtasuna eta babes zibila.** Arrisku naturalen eta krisi-egoeren kudeaketaren aurrean herritarrek duten kontzientzia bultzatzea eta herritar guztientzat, bereziki haurrentzat, giro seguru eta osasuntsua bermatzea. Udalerriko kide izatearen sentipena sustatuko da herritarren bizikidetzarako eta herritarrek espazio publikoetan nahiz gainerako biztanleekiko harremanetan dituzten betebeharrak eta erantzukizunak onartzeko garapen-politiken bidez. Halaber, segurtasuna beste alderdi batzuetara zabalduko da, baldin eta horiek herritarren erosotasuna, lasaitasuna eta osasun-bermea hobetzeko badira: kaleak eta plazak zaintzea, urak eta hondakinak tratatzea, elikagaiak kontrolatzea, etab.

3. KALITATE INSTITUZIONALA

3.1. Urnietako Udaleko gobernu-taldeak bere gain hartzen dituen konpromisoak eta erantzukizunak

Urnietako Udaleko alkateak eta bere gobernu-taldeak zeregin instituzionaltzat dute beren zereginetan udalerriko gobernu eta erakundearen zuzendaritza politikoa erantzukizunez gidatzea leialtasun instituzionalez jokatuta, eta beren eskumen-eremuetan, udalerriak eskuragarri dituen baliabideak kontuan hartuta, herritarrentzat ongizate handiena lortzen saiatzea.

Xede horrez, herritarrekiko honako konpromiso nahiz erantzukizun hauek hartzen dituzte euren gain:

- **Erakundea duintasunez ordezkatzeta.** Alkateak (eta gobernu-taldeak) bere gain hartzen du erakundea bere osotasunean eta ez zati batean ordezkatzeko konpromisoa. Jokabideari buruzko Europako Kodearen arabera, erantzule dira tokiko herritarren aurrean, baita botoa eman ez dieten hautesleen aurrean ere. Legezkotasun demokratikotik datorkie ordezkari instituzional eta tokiko agintari izatea. Hortaz, karguan jardutean, baita portaera publiko eta pribatuan ere, ezinbestekoak dira zuzentasuna eta euspidea.
- **Herritarrei eraginkortasunez komunikatzea eta aktiboki entzutea.** Herritarren ikuspegitik udal-gobernuaren kalitatezko tokiko politika, neurri handian, eraginkortasunez komunikatzeko gaitasunaren araberakoa da. Urnietako politikariek eskura dituzten bitarteko guztiak (sare sozialak barne) erabiliko dituzte, herritarrekin komunikatzeko eta modu ximple eta ulergarrian jakinarazteko zein erabaki hartu dituzten eta zergatik. Era berean, herritarren kezka, iradokizun eta kexa guztiak aktiboki eta arretaz entzungo dituzte eta eskei modu arrazoituan ezetz esango diete, objektibotasunez egoerak hala eskatzen duenean.
- **Politikak formulatzea eta helburu estrategikoak definitzea.** Udal-taldeak helburu estrategikoak definituko ditu, gerora, Urnietako biztanleen aldeko udal-politika koherentea eta jasangarria garatzeko. Politika legealdiko planen bitartez bideratuko da eta Urnietako udal-politikaren ardatzak, nolana ere, ingurune aldakorretara egokituko dira.
- **Gainerako talde politikoei beharrezko informazioa ematea.** Gobernu-taldeak behar

du ten informazioa emango die gainerako talde politikoei, horiek gobernuari kontrolatu ahal izateko. Talde politiko guztiek informazio egokia lortzeko aukera izan behar dute euren zeregina gauzatzeko, betiere legez kotasunaren barruan.

- **Politikak lehenestea eta erabakiak hartzea.** Lehen tasun politikoak definitzea tokiko politikaren funtsa da, are gehiago, krisialdi ekonomiko-finantzarioetan edo aurrekontuari eutsi behar zaionean. Urnietako Udaleko ordezkari politikoek herritarrentzako zerbitzuen zorroa mantenduko dute, betiere egoera ekonomiko-finantzarioak hala uzten duenean. Ildo horri eutsiz, arduraz jardungo dute, udal-finantzen jasagarritasuna arriskuan dagoenean eta, horretarako, lehen tasuna emango diete udalerrirako nahiz herritarrentzako (bereziki, egoera ahulean dauden taldeentzako) politika garrantzitsuenei. Horrez gain, erabaki konplexuak hartuko dituzte, testuinguruak hala eskatzen duenean, Udaleko oposizio politikoko langileei eta herritarrei azalpen egokiak eman ondoren.
- **Emaitza edo helburuen arabera lan egitea.** Emaitza edo helburuen arabera lana politikaren arrazionalizazio-prozesuaren beharra da tokiko gobernuaren egituretan, bat etorritik Udalbatzak onetsitako helburu estrategikoekin eta gobernu- edo agintaldi-planekin, eta udalerrria hobeto kudeatzen lagunduko du.
- **Arazoak konpontzea eta gatazkak ebaztea.** Urnietako Udaleko ordezkariak erkidegoaren gatazka edo arazoak ebatzi edo arazoizko konponbideak bilatuko dizkiete. Hala eta guztiz ere, tokiko hautetsiek (alkateak eta gobernu-taldeko kideek) "gai, arazo edo gatazka politikoak" ebatzi beharko dituzte; politikoak ez direnak, ordea, Udaleko zuzendaritza-egiturek edo funtzionarioek ebatziko dituzte.
- **Beharrezkoa denean eskuordetzea.** Urnietako alkateak garrantzi txikiagoko gaiak eskuordetuko ditu, batetik, bere erakundearen eraginkortasuna hobetzeko eta, bestetik, herritarrei zerbitzu hobek emateko. Tokiko arduradun politikoak, gobernu-zereginak dituenak, gai garrantzitsuei erreparatuko die eta gai txikiak eskuordetuko ditu. Dena den, ondo aztertuko da nori eskuordetu, pertsona horrek eskuordetutako zereginak behar bezala betetzeko eskumenak izan behar baititu. Helburua herritarren interesa bermatzea eta horien itzaropen eta interesei iruzurrik ez egitea da.
- **Erantzukizunez negoziatzea.** Udaleko arduradun politikoak konpromisoa hartzen du edozein talde, oposizio politiko edo erakunderekin negoziazio-prozesu orotan talde-interesak eta Udaleko finantza publikoen jasagarritasuna babesteko, ez baita jarrera arduratsua etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzea edo udalerrria jasagarria ez den moduan zorpetzea. Negociazio-prozesu orotan, tokiko hautetsiek ezet esango dute beharrezkoa denean, baina erabakia arazoitu egin beharko dute eta datu objektiboak emango dituzte. Hala, "ez positibo" (justifikatua) eta arduratsuaren alde egingo dute.
- **Baliabide urriei lehen tasuna ematea.** Aurrekontuari eutsi egin behar zaionean, tokiko politikariak Urnietako baliabide publikoak erantzukizunez eta eraginkortasun-nahiz ekonomia-irizpideen arabera kudeatuko dituzte. Aurrekoaren ildotik, udal-aurrekontu errealistak eta doituak egingo dira, zerbitzuen kostuak kontrolatzeko politikak ezarriko dira, udal-politikekin bat datorren aurrekontua landuko da eta baliabide publikoak gaizki kudeatzeagatik herritarrek zerga-zigorrek jasotzea saihestuko da.
- **Udal-politika publikoak ebaluatu eta ikuskatzea.** Alkateak eta gobernu-taldeko kideek etengabe ebaluatu eta ikuskatuko dituzte beren erantzukizunpeko zerbitzuak eta politikak, aurreikusitako helburuak eta kostuak ez desbideratzeko eta, gainera, doitasun ezak herritarren kalterako izatea saihesteko. Zeregin horietan aritzeko, beren talde teknikoetan edo aholkulari teknikoetan oinarrituko dira.
- **Sareak ardaztea eta Gobernu Irekia bultzatzea.** Udal politikako arduradunek Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren politika garatuko dute eta, aldi berean, sareak

egituratzea sustatuko dute, informazioa trukatu eta sinergien bitartez, tokiko gobernuaren garapena bultzatzeko eta konponbideak partekatzeaz gain, zerbitzuakematean kostuak murrizten laguntzeko. Urrietako Udaleko gobernu-taldeak tokiko Gobernantza adimentsua sustatuko du, eta, horretarako, herritarren partaidetza-, hurbiltasun- eta eztabaida-formulen bitartez. Helburua da herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza indartzea.

- **Gobernu-taldearen edo zuzendaritza- ala funtzionario-taldeen buru izatea.** Alkateak, bereziki, eta gobernu-taldea osatzen duten kideek, oro har, gogatzean eta eredugarritasunean oinarritutako lidergoa bultzatuko dute. Hori, profesionaltasuna garatzeko, proiektuetan lan egiten duten zuzendaritza-taldeak eta langileak batzeko eta langileen oreka eta garapen emozionala sustatzeko. Modu horretan, erraztu egingo da ordain eta pizgarrien sistemak erabiliz testuinguruan aritzea. Ondo aplikatutako lidergoa herritarren zerbitzu publikoak hobeto emateko erabili behar da.

3.2. Urrietako Udaleko gainerako talde politikoetako kideek onartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Urnietako Udalean oposizio politikoa osatzen duten pertsonak eta kide izan gabe udal- gobernu babesten duten bestelako pertsonak ere gobernu-taldearen oposizio politikoan erantzukizunez eta modu konstruktiboan jokatzeko zeregin instituzionala dute. Hala, jarduera horretan erakundearekin leial jokatzeko dute eta dagozkien eskumen-eremuetan eta Udalak dituen baliabideetan funtsatuta, herritarren ongizate onena lortzen saiatuko dira.

Oposizioaren zeregin instituzionala aplikatzeko, politikoki udal-gobernuaren ekintza kontrolatu behar da eta herritarrei proposamen bideragarriak eta jasangarriak eskaini behar zaizkie, gobernuarekiko egiazko aukera bihurtzeko.

Xede horrez, Urrietako Udaleko oposizioko kideek, herritarren aurrean, honako konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte:

- **Erakundea duintasunez ordezkatzeta.** Oposizioko kideek erakundea duintasunez ordezkatzeko dute parte hartzen duten ekitaldi, ospakizun edo jarduera instituzional guztietan. Nolanahi ere, ordezkari instituzionalak dira hauteskundeetan lortutako legezotasun demokratikoan oinarrituta. Era berean, beren funtzio publikoak leialki betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta, bereziki, karguan jardutean eta jokabide publikoan eta pribatuan arreta eta euspen berezia jarri. Zuzentasun instituzionala nagusi izango da Udaleko gehienekin edo gobernu-taldearekiko harreman politiko eta instituzionaletan.
- **Herritarren eskeak eraginkortasunez bideratu eta jakinaraztea eta herritarrak aktiboki entzutea.** Udaleko oposizioak arduraz bideratuko ditu herritarren eskeak, balioztatu eta, bidezkoa bada, udal-gobernuak onesteko. Horretarako, modu eraginkorrean komunikatuko dira eta herritarren kezka, iradokizun edo kexa guztiak aktiboki eta arretaz entzungo dituzte.
- **Udalerriko helburu estrategikoak definitzen laguntzea.** Etorkizuneko udalerrira irudikatzen lagunduko duten helburu estrategikoak definitzeko orduan, Udaleko oposizioko kideek gobernu-taldearekin positiboki eta aktiboki lankidetzan jardungo dute. Izan ere, gerora helburu horien bitartez herritarren onurarako udal-politika koherentea eta jasangarria egin ahal izango da. Lankidetzeta-politikak nagusiki plangintza estrategikoko tresna guztiei erreparatuko die eta, bidezkoa bada, inguruabarrek edo testuinguruak hala eskatzen dutenean, moldatu egingo dira.
- **Politikak lehenestea Udal-finantza publikoek Udalak ematen duen zerbitzu-**

zorroaren arlo guztietan esku-hartze unibertsala egiteko aukerarik ematen ez dutenean. Udaleko oposizioko kideek gobernu-taldeari proposamenak egin behar dizkiotenean edo gobernu-taldea bera kontrolatu behar dutenean, arreta berezia jarriko diote udal- finantza publikoen egoerari eta, lehenetsi egingo dituzte, egoera horren arabera eta euren programa politikoarekin bat, beren iritziz, une bakoitzean herritarren beharrei erantzuteko beharrezkoak direnak. Ondorioz, baliabide urriak kontuan hartuta, zerbitzuen zorroa koordinatu finantzarioetara doitu edo egokituko dute, eta, bide batez, saihestu egingo dute udal-finantzak itotzea eta finantza-betebeharrak etorkizuneko belaunaldiei uztea.

- **Udal-gobernuaren jarduera kontrolatzea eta politika publikoen kudeaketaren helburu eta emaitzen jarraipena egitea.** Oposizioaren zeregin instituzional nagusietako bat da gobernuaren jarduera kontrolatzea eta hurrengo hauteskundeetarako aukera sinesgarri bihurtzea. Esparru horretan, oposizioko kideek udal-politikaren jarraipena egingo dute eraginkortasunez, zeregin horiek garatzeko behar den denbora hartuko dute eta udal-politika publikoen eremuetan gobernu- jardueraren helburuak eta emaitzak kontrolatuko dituzte. Zeregin horiek oso-osorik betetzeko, udal-gobernuak tresna guztiak jarriko ditu beren esku eta ahalbidetu egingodien eskatutako informazioa eskura dezaten indarreko legediak xedatutakoaren arabera.
- **Arazoak konpontzen eta gatazkak ebazten laguntzea.** Oposizioko tokiko ordezkariak, gobernu-taldearekin batera, erkidegoari eragiten dizkioten arazo edo gatazka guztietan arrazoizko konponbidea ematen lagunduko dute. Arazoak eta gatazkak kudeatzeko orduan azken erantzukizuna, noski, Udaleko gobernu-taldeak izango du, baina oposizio politikoak kostu publikoak minimizatzeko eta, aldi berean, egoera bakoitzean planteatutako interes publikoak eta pribatuak zentzuz asetzeko aukerak bilatzea sustatuko du, bitartekaritzaren eta kontrolaren bitartez.
- **Erantzukizunez negoziatzea.** Udaleko oposizioko arduradun politikoek babestu egingo dituzte taldearen interesak eta udal-finantza publikoen jasangarritasuna, gobernu-taldearekin, bestelako erakundeekin edo herritarrekin dituzten negoziazio-prozesu orotan. Era berean, ez litzateke jarrera arduratsua izango etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzea edo udalerrria jasangarria ez den moduan zorpetzea. Negoziatio-prozesu guztietan, oposizioko politikariek erantzukizunez negoziatuko dute eta berariaz justifikatuko dituzte jarrera zehatza hartzeko arrazoiak, herritarrek ezagutu eta, bidezkoa bada, balora ditzaten.
- **Udal-aurrekontuak egitean erantzukizunez parte hartzea.** Bitarteko urriei lehentasuna ematea. Aurrekontuari eutsi behar zaionean, tokiko oposizioko politikariek erantzukizunez parte hartuko dute udal-aurrekontuak egitean eta topaketa-puntuak bilatzen saiatuko dira.
- **Udalaren Gobernu Irekia eta Gardentasuna sustatzen laguntzea.** Udaleko oposizio politikoko arduradunak aktiboki arituko dira lankidetzan Gardentasun eta Gobernu Irekiaren udal-politika garatzeko orduan. Horrez gain, sareak egituratzea sustatuko dute. Sare horiek lagundu egingo dute, informazioa trukatzu eta sinergien bidez, konponbideak partekatzen eta zerbitzuak ematean kostuak murrizten. Bere zereginen barruan, oposizioak tokiko Gobernantza adimentsua eta herritarrek parte hartzeko tresnak bultzatuko ditu, herritarrek erakundeetan duten konfiantza indartze aldera.